

BERRI OROKORRAK

2024ko abenduaren 13an 14. zenbakia

Bazkideen txokoa

Udarregi Ikastolak bazkideen artean Erle Eguneko 4 ezti pote zozketatuko ditu. Saridunei emailaz jakinaraziko zaizue. Zorte on!!



Jangela-zerbitzua

Abenduan jangelako bazkaldarrek izango duten menua honakoa da:

◆ 3-16 urtekoen menuak

[Abenduko menua](#)

[Abenduko alergia eta intolerantzien menua bereziak](#)

◆ Haur Eskolako (0-3 urte) menuak

[Haur Eskolako menu orokorra](#)

[Haur Eskolako alegia eta intolerantzia menuak](#)



Jangela abenduaren 19an

Abenduaren 19ko eguerdian DBH, LH eta HH 3-6 urtekoen eskolak 12:30ean amaitzen direnez, jangelako bazkaldarrak **etxera bakarrik** joatea nahi izanez gero, **baimena** usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz eman beharko da. Haurraren bila heldu batek bertaratu behar badu, **gogoratu haurrak 14:30ak baino lehenago jaso behar dituzuela.**

Bestalde, eguneroko bazkaldarrei gogorarazi nahi diegu, abenduaren 19an **jangelako zerbitzua erabili behar ez badute**, ahalik eta azkarren usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz **jakinarazi** behar dutela.

Ikastolako CDa

Oporrak datozela ta... jakinarazi nahi dizuegu Udarregi Ikastolak CDa 12 haur kantekin aterata duela 2017. urtetik, ikastolan abesten diren kantak barne. Grabazioa ikastola osatzen dugunok eginga da, ikastolako guraso eta irakasle musikari bikainen partehartzearekin.

Astelehen arratsaldean, **abenduak 16, Agerialdeko jolastokian** postu bat jarriko da CD salmentarako. Animatu eta erosi!



Iparraldeko ikastolen egutegiak salgai

Iparraldeko ikastolek urtero egin ohi duten bezala, 2025eko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **Ikastolako idazkaritzan** egongo dira **salgai**. Bakoitzaren salneurria, **4 €**.



Arberoa ikastolari laguntza

Duela lau aste, Nafarroa Beherako Arberoa ikastolak su hartu zuen eta sostengu kanpaina bat abiatu du haien proiektua aurrera eramanez ahal izateko.

Internet bidez denda txiki bat ireki dute.

[Hemen produktuak](#) Animatu eta lagundu!



HAUR HEZKUNTZA

Txistorra-ogitartekoa

Gogoratu, falta zaretenak, txistorraren dirua ekartzea **1,5 euro** **ABENDUAK 16**rako.



Neguko oporrak

Datorren abenduaren 19an, ostegun eguerdian, oporrak hartuko ditugu. Egun horretan, txistorra jango dugu. Ondoren, 11:45ean, Bordatxo pareko Olentzerori abestuko diogu. Bukatzean, ikastolara itzuliko gara. Beraz, haurrak betiko lekuan eta orduan jaso behar dituzue.

Euria egingo balu, ikastolako frontoian abestuko genuke. Kontuan izan, hurrek baserritarrez jantzita etorri behar dutela.



Baso-eskola

Datorren astean ez dugu BASO-ESKOLAKO SAIORIK EGINGO.

Oporren bueltan, baso eskolako lehenengo saioa:


HH4: Urtarrilaren 16an

HH5: Urtarrilaren 15ean



Gabonetarako haurren ekintzak

Urtero bezala, Udalak Gaboneko ekintzak antolatu ditu haurrentzat. Olentzerori eta Mari Domingiri eskutitzak bidaltzeko postontziak jarriko dira abenduaren 12tik aurrera herriko hainbat gunetan: Ikastolan, Aginagako eta Zubietako eskola txikietan, Santueneko eta Aginagako zaharren egoitzetan, liburutegian, ludotekan, Potxoenean eta Txokoargin. Honako hau duzue [egitarau osoa](#).



LEHEN HEZKUNTZA

Ebaluazio-txostenak

Abenduaren 17an, asteartea, igoko dira ebaluazio txostenak Alexia aplikaziora..

Abenduko kobrantzak

❖ Hatz 10

Hilabete honetako erreziboarekin batera, Hatz 10 mekanografia ikastaroaren zenbatekoa kobratuko zaie **LH4., 5. eta 6. mailako** ikasleei. Kostua **5 €** izango da.



❖ Optometrista - LH1

Frogak pasa zaizkien haurren familiei 16 euro kontu korrontetik kobratuko zaizkie hileko erreziboarekin batera.

❖ Irteera - LH6

Abenduaren 16an LH6. mailako kurtso bukaerako irteerari dagoekion erreziboa pasako da. Zenbatekoa **30 €** izango da eta errezibo bidez kobratuko da.

Abenduak 19

LHko ikasle eta irakaslez osatutako Udarregiko orfeoia, **ostegunean, abenduak 19**, goizeko **9:30ean kalez-kale abestera** irtengo da. Ondoren, ikastolan txistorra goxoa jango dugu.



LH5. mailako ikasleen aitona-amonentzat emanaldia

Abenduaren 16an, aitona-amonentzat emanaldia prestatu dugu BIZITZA JIRA-BIRAN izenburupean. Hiruhileko honetan ikasitakoaz hainbat gauza erakutsiko ditugu.

Emanaldia 15:00etan hasiko da, 3. solairuko LH5. mailako geletan. Igogailuan igotzeko aukera egongo da.

LH5eko ikasleek asko eskertzen dute zuen parte-hartzea.

Data: abenduaren 16an, 15:00etan

Lekua: 3. solairuko LH5. mailako geletan

Bertan elkar ikustea espero dugu!




Arropa galdua

Ageri-aldeko sarreran dagoen arropa galduen txokoa beteta dago. Beraz, abenduaren 19an bertan dagoen arropa Caritaseko edukiontzira eramango dugu.



Gabonetarako haurren ekintzak

Urtero bezala, Udalak Gaboneko ekintzak antolatu ditu haurrentzat. Olentzerori eta Mari Domingiri eskutitzak bidaltzeko postontziak jarriko dira abenduaren 12tik aurrera herriko hainbat gunetan: Ikastolan, Aginagako eta Zubietako eskola txikietan, Santueneko eta Aginagako zaharren egoitzetan, liburutegian, ludotekan, Potxoenean eta Txokoargin. Honako hau duzue [egitarau osoa](#).



DBH

Material-kobrantza

Abenduaren 16an, hileko erreziiboarekin batera, DBHko ikasleei 2024/25 ikasturteko eskola-materiala kobratuko zaie. Materialaren kostua, **38,50 €** izango da.



Irteera DBH4

Eguraldiak laguntzen badu, hurrengo astelehenean, abenduak 16, DBH 4. mailakoak Zumaiako Geoparkea eta Flysch-a ezagutzera joango gara goizeko saioetan Biologia-Geologiako ikas-irteeran. Bertan, ebaluaketa honetan landutakoak praktikara eramatea izango da helburu. Gogoratu hamaiketako eta Mugi garraio-txartela eramatea.

